


# Kalkulu kimikoak: ariketak

## Ariketa #1

Kalkulatu karbono dioxido gasaren bolumena baldintza estandarretan (25 °C eta 1 atm) 25 cm<sup>3</sup> azido klorhidriko 2M kaltzio karbonatoarekin erreakzionatzen duenean.




Zenbat gramo kaltzio karbonato erreakzionatuko dute?

Masa atomikoak: C=12; O=16; Ca=40.

## Ariketa #2

Zenbateko bolumen azido klorhidriko 2M behar da 1,25 g magnesio karbonatoarekin, MgCO<sub>3</sub>, erreakzionatzeko?




Masa atomikoak: C=12; O=16; Mg=24

# Kalkulu kimikoak: ariketak

## Ariketa #3


Zilar nitrato nahikoa gehitzen denean 10 mL sodio kloruro disoluzio bati 0,780 g zilar kloruro lortzen dira. Kalkulatu sodio kloruro disoluzio horren kontzentrazioa g/L-tan



Masa atomikoak: Na=23; Cl=35,5; Ag=108


## Ariketa #4

Kalkulatu lortuko den oxigeno bolumena (27 °C eta 800 mmHg-tan neurtua) 50 cm<sup>3</sup> hidrogeno peroxido 2M deskonposatzen denean.



## Ariketa #5

Purua ez den magnesioa HCl disoluzio batekin erreakzionatzen du.



Magnesio lagin horren 1,32 g 0,1 L HCl 0,750 M disoluzio batekin tratatzen da eta HCl-ren 0,0125 mol ez dute erreakzionatu. Kalkulatu lagin horren magnesioaren proportzioa. (Mg=24)